

Arrisku txikiagoa

Potentzialki
errendimendu txikiagoa

1
2
3
4
5
6
7
Arrisku handiagoa

Potentzialki errendimendu
handiagoa

Gure pentsio-planen arriskua 2tik 6ra bitartekoa da. Pentsio Planen arriskua neurtzen duen adierazle bat da, eta datu historikoetan oinarrituta kalkulatzen da. Hala ere, gerta daiteke adierazle fidagarria ez izatea planaren etorkizuneko arrisku-profila zehazteko. Gainera, ezin da ziurtatu zehaztutako kategoria etorkizunean aldatuko ez denik. Gure pentsio-planen arrisku-mailari buruzko informazioa kontsulta dezakezu hemen: www.cajaruraldenavarra.com

Likidezia-alertak:

- 88** Prestazioa kobratzea edo berreskurapen-eskubidea baliatzea soilik egin daiteke pentsio-plan eta -funtzen arautegian ezarritako salbuespenezko likidezia-kontingentzia edo -kasuren bat gertatuz gero.
- 88** Mobilizazio-eskubideen, prestazioen eta salbuespenezko likidezia-kasuen balioa pentsio-funtsaren aktiboaren merkatu-balioaren mende dago, eta gälara handiak eragin ditzake.

Pentsio planak

Zer dira?

Aurreikuspen-produktuak dira, erretiroa hartu ondoren zure bizi-mailari eusten lagunduko dizutenak aurrezkien bitartez, erretiroko zure ordainsari publikoaren osagarri eta tratamendu fiskal bikaina izanik. Epe luzera aurrezteko planak direnez, zenbat eta lehenago harpidetu, orduan eta diru gehiago metatu ahal izango duzu aurrezkitan.



Zergatik aurreztu behar da pentsio-plan baten bitartez?

Sistema publikoak iraunkortasun-arazoak ditu (bizi-itxaropena gora doa eta jaiotza-tasa behera, bizitzaren prezioa garestitzen ari da eta abar). Irtenbide praktikoa bat pentsio publikoa osatzea da, lanean ari garen bitartean aurreikuspen-planetan sartutako aurrezkiekin.

Aurrezteko gakoak:



Lehenbailehen hastea

Aurreikuspen Plan bat kontratatzeko unerik egokiena lanean hastean izango litzateke. Zenbat eta lehenago hasi, orduan eta diru gehiago aurreztuko da epe luzera, denboraren poderioz aurreztutakoa biderkatu egiten baita.



Ekarpinak aldizka egitea

Baliagarri izan dakiguke gure erretirorako aurrezkia aldizkako beste gastu bat dela pentsatzea, eta hileko aurrekontuan sartzea.



Zure Plana zure erretirorako helburuaren arabera aukeratzea

Erretirorako zeure buruari ezartzen diozun helburuaren eta arriskuarekiko tolerantziaren arabera, plan bat edo beste aukeratu ahal izango dugu, edo zenbait plan uztartu. Badira % 100a errenta finkoan inbertitzen duten planak, baita % 100a errenta aldakorrean inbertitu dezaketenak ere, eta tarteko aukera guztiak; bestalde, bizi-zikloko planen sorta oso bat ere badugu, errenta aldakorren aukera egokitzen dutenak eta, beraz, errentagarritasuna optimizatzen dutenak.



Ekarpinak Eta Fiskalitatea

Gaur egun Pensio Plan indibidual batean urtean gehienez egin daitekeen ekarpena **1.500 €** da. Beraz, oso erraza da gehieneko zenbateko horretara iristea baldin eta, gainera, aldizkako ekarpenen egutegi bat osatzen baduzu, zure erretiroa erosotasunez prestatu ahal izateko.

Gainera, **autonomia bazara**, RGAAutónomos Pensio Plan berriekin, pensio-planetarako ekarpena 4.250 euroan handitu dezakezu, erretirorako dirua aurreztea errazten duen tresna honen bitartez. Edo, nahiago baduzu, **gehienez 5.750 euroko ekarpena** egin dezakezu RGAAutónomos planetan. Eska ezazu informazioa Nafarroako Rural Kutxako zure bulegoan.

Ekarpinak **egutegi** batean planifikatzeak abantaila asko ditu.

Epe luzera aurrezteko ohitura sustatzen du. Aldizkako ekarpenei esker, erretirora ezustekorik gabe iritsiko zara, modu metodiko eta konstantean.

- **Sinpletasuna.** Egokiena da erretirorako aurrezki hileko beste gastu bat dela pentsatzea, automatikoki.
- **Ahalegin txikiagoa** Ordainketa bakarra egiten denean baino txikiagoa izaten da ekarpena.

- **Bizi-ziklo** bakoitzera egokitzea. Aurrezki errepikakorrek ez du esan nahi erretirorako itsulapikora bideratutako partidak ezin direnik egokitu. Bezeroak bere bizi-ziklora molda dezake zenbatekoa.
- **Emaitza hobeak.** Epe luzera aurrezteko ohiturekin eta aldizkakoekarpekin, denbora eta konstantzia geure alde izaten ditugu: merkatuaren arriskuak lausotu egiten dira hainbat ziklo ekonomikotan inbertitzen denean, eta errentagarritasuna sortzeko aldia luzatu egiten da.

Gogoratu: egoitza fiskala Nafarroan baldin baduzu, PFEZren Zerga Oinarritik gehienez 1.500 € kendu ahal izango dituzu, betiere zerga-oinarriak ez baditu honako hauek gainditzen:

- 50 urte baino gutxiago badituzu, zure lanaren edo jardueraren ekonomikoen errendimenduen % 30.
- 50 urte edo gehiago badituzu, zure lanaren edo jardueraren ekonomikoen errendimenduen % 50.



Ezkontidearen aldeko ekarpinak:

- Gehienez **1.000 €**
- Lanaren edo jardueraren ekonomikoen ondoriozko errendimendu garbirik gabeko ezkontidea, edo errendimendu hori **urtean gehienez 8.500 €** duena.

Fiskalitatea

- Aurrezpen fiskal interesgarria zure hurrengo errenta-aitorpenean.
- Urtean zehar egiten dituzun ekarpenei esker, Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarri orokorra murrizten da.

Beste abantaila batzuk

Mugikortasuna:

→ Zure Pentsio Plana erakunde batetik bestera eraman dezakezu, inolako kosturik gabe.



Erantzukizuna:

→ Inbertsio Sozialki Arduratsuaren (ISA) politika duten planak

Gardena

Balio etikoak

Arriskuaren kudeaketa zabala

Prestazioak

Noiz berreskura dezaket nire kapitala?

Erretiroa hartzen duzunean, edo honako kasu hauetan:

- Heriotza.
- Baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor oso edo absolutua.
- Mendekotasuna.
- Gaixotasun larria
- Luzaroko langabea.
- Aldez aurretik eskuratzea.

(2025/01/01etik aurrera, ekarpenei dagozkien eskubideetarako gutxienez 10 urte)

Nola? 4 aukera

- 1. Kapitala:** dena batera.
- 2. Errenta:** aukeratu aldizkakotasuna eta zenbatekoa.
- 3. Mistoa:** zati bat kapitala, gainerakoa errenta.
- 4. Maiztasun erregularrik gabeko ordainketak.**

Fiskalitatea

Ekarpenen dataren, kobrantza eragin duen arrazoiaren, kobratzek moduaren eta antzintasunaren arabera.



Nafarroako Rural Kutxaren planak

Gama osoena, zure erretiroari aurpegi ona erakusteko.

30 urte baino gehiago daramatzagu 300.000 bezeroren baino gehiagoren Planak kudeatzen, eta zure beharretara hobekien egokitzen den Plana aukeratzen laguntzen ahal dizugu.



Gama tradizionala

Aukera kontserbadoreenekin hasi, moderatuekin jarraitu eta agresiboenekin bukatu.


Bizi-zikloko gama

Plan hauetan, erretiroa hartzeko eguna hurbildu ahala, zure inbertsioa gero eta posizio kontserbadoreagoetara banatzen da.

Gama tradizionala

Aukera kontserbadoreenekin hasi, moderatuekin jarraitu eta agresiboenekin bukatu.

RGADinero pentsio-plana



Epe laburrera errenta finkoko plana. Errenta finkoan inbertitzen da % 100a eta, beraz, ezin egokiagoa da inbertsio-profil defentsiboetarako.

RGARenta Fija pentsio-plana




Errenta finkoan inbertitzen da epe luzera, eta gehienez % 5 errenta aldakorrean. Ezin egokiagoa inbertsio-profil kontserbadoreetarako.

RGAMixto 20 II pentsio-plana



Errenta finko mistoko plana, inbertsio-profil moderatuetaarako. Gehienez % 20 inbertitzen da errenta aldakorrean.

RGAMixto 40 pentsio-plana



Errenta aldakor mistoko plana, inbertsio-profil moderatuetaarako. % 20tik % 40ra bitarte inbertitzen da errenta aldakorrean.


(1) Datu hori pentsio-planaren arriskua neurtzen duen adierazle bat da, eta datu historikoetan oinarrituta kalkulatzen da. Hala ere, gerta daiteke adierazle fidagarria ez izatea planaren etorkizuneko arrisku-profila zehazteko. Gainera, ezin da ziurtatu zehaztutako kategoria etorkizunean aldatuko ez denik.

RGAMixto 75 pentsio-plana




Errenta aldakor mistoko plana, inbertsio-profil dinamikoetarako. % 40tik % 75era bitarte inbertitzen da errenta aldakorreko aktiboetan.

RGARenta Variable Española pentsio-plana




Gutxienez % 75 Espainiako errenta aldakorrean inbertitzen da, batik bat, IBEX 35 indizea osatzen duten balioetan. Epe luzeko inbertsioa bilatzen duten profil agresiboetarako da egokia, epe ertainean eta laburrean sor daitezkeen gorabeherak onartzeko prest egonez gero.

RGARenta Variable Española pentsio-plana



Europako errenta aldakorreko plana, gutxienez % 75 errenta aldakorrean inbertitzen duena, batik bat, Eurostoxx 50 indizea osatzen duten baloreetan. Inbertsio-profil agresiboa dute pertsonentzat da egokia, hau da, erretiroa urrun izanik, arriskuarekiko abertsiorik ez duten eta Europako errenta aldakorrean inbertitu nahi duten pertsonentzat.

RGARenta Variable Global pentsio-plana



Ezin egokiagoa da, hegakortasunaren beldur izan gabe, burtsen errebalorizazioari etekina atera nahi diotenentzat. Gutxienez % 75 nazioarteko errenta aldakorrean inbertitzen da (ez dira izaten garatzeko bidean dauden herrialdeak), batik bat, MSCI World indizea osatzen duten balioetan.


(1) Datu hori pentsio-planaren arriskua neurtzen duen adierazle bat da, eta datu historikoetan oinarrituta kalkulatzen da. Hala ere, gerta daiteke adierazle fidagarria ez izatea planaren etorkizuneko arrisku-profila zehazteko. Gainera, ezin da ziurtatu zehaztutako kategoria etorkizunean aldatuko ez denik.

(2) Datu hori pentsio-planaren arriskua neurtzen duen adierazle bat da, eta simulatutako datuetan oinarrituta kalkulatzen da. Hala ere, gerta daiteke adierazle fidagarria ez izatea planaren etorkizuneko arrisku-profila zehazteko. Gainera, ezin da ziurtatu zehaztutako kategoria etorkizunean aldatuko ez denik.

Bizi-zikloko gama


Plan hauetan, erretiroa hartzeko eguna hurbildu ahala, zure inbertsioa gero eta posizio kontserbadoreagoetara banatzen da.

RGAMiFuturo 2031 pentsio-plana



Bizi zikloaren filosofiari jarraikiz kudeatutako plana: inbertsioa gero eta posizio kontserbadoreagoetara banatzen da erretiroa hartzeko eguna (2031 inguruan) hurbildu ahala. Epe luzeko inbertsioa egiteko plana, inbertsio-profil dinamikoetarako. % 23tik % 37ra bitarte inbertitzen da errenta aldakorrean.

RGAMiFuturo 2038 pentsio-plana



Bizi zikloaren filosofiari jarraikiz kudeatutako plana: inbertsioa gero eta posizio kontserbadoreagoetara banatzen da erretiroa hartzeko eguna (2038 inguruan) hurbildu ahala. Epe luzeko inbertsioa egiteko plana, inbertsio-profil dinamikoetarako. % 48tik % 68ra bitarte inbertitzen da errenta aldakorrean.

Plan de pensiones RGAMiFuturo 2045



Bizi zikloaren filosofiari jarraikiz kudeatutako plana: inbertsioa gero eta posizio kontserbadoreagoetara banatzen da erretiroa hartzeko eguna (2045 inguruan) hurbildu ahala. Epe luzeko inbertsioa egiteko plana, inbertsio-profil agresiboetarako. Gehienez % 94 inbertitzen da errenta aldakorrean.

(2) Datu hori pentsio-planaren arriskua neurtzen duen adierazle bat da, eta simulatutako datuetan oinarrituta kalkulatzen da. Hala ere, gerta daiteke adierazle fidagarria ez izatea planaren etorkizuneko arrisku-profila zehazteko. Gainera, ezin da ziurtatu zehaztutako kategoria etorkizunean aldatuko ez denik.

Pentsio-planetako partaidearentzako Funtsezko Datuak dokumentua hemen eskura daiteke: www.cajaruraldenavarra.com.
Erakunde kudeatzailea: RGA Rural Pensiones - IFK: A 78963675. Erakunde gordailuzaina: Banco Cooperativo Español IFK: 79496055.
Pentsio-planen erakunde sustatzailea: RGA Rural Vida S.A. - IFK: A 78229663.



**CAJA RURAL
DE NAVARRA**